

DANTZA. Les Ballets de Monte-Carlo dantza taldeak zabalduko du Kursaal Fundazioaren bigarren denboraldia

Oinutsik ariko da dantzan Mari Errauskin

Jean Christophe Maillot koreografoaren 'Maria Errauskin' dantza ikuskizun berritzailea eskainiko dute gaur



HANS GERRITSEN

Chris Roelandt eta Bernice Coppieters dantzan. Maria Errauskinen aitaren eta maitagarriaren pertsonaiak jokatzen dituzte.

ASIER URIAGEREKA

Dantzaria

«Ez da balet klasikoa; naturalagoa da. Izan ere, pertsonaiaren azalean sartzen gara, baina gure erara egiten dugu dantza»

ALINA LAGOAS

Dantzaria

«Jantzien bitartez ongi islatzen da Mari Errauskinen soiltasuna. Horrekin, egungo gizarte artifiziale kritikatzeko da»

ardista egiten du istorioarekin: «Ikuskizun alai, poetiko eta kritikoa da. Ez du zerikusirik Disney-ek erakutsi digun Mari Errauskin sentimental eta kariataturizatuarekin».

Soiltasuna da Mailloten obraren ezaugarri nagusia, horixe baita, benetakotasuna, transmititu nahi duen ideia: «Pertsonaiek soinean dituzten jantzien bitartez oso ongi islatzen da hori. Maria Errauskinek eta bere amaren jantzi xaloek adibidez, nabarmen uzten dute ahizpaordeen edota amandarearen artifizialtasuna». Horrekin, egungo gizarteari kritika egin nahi zaiola gaineratu zuen Alina Lagoas dantzariak.

Naturaltasuna

Berarekin batera hartzen du parte obran Asier Uriagereka euskal dantzariak. Bere esanetan, elementu artifizial gutxiko ikuskizun «dotorea» da Mari Errauskin. Oso esplizitua omen da obra, eta, beraz, ez ditu balet klasikoaren kodeak erabiltzen. «Oso naturala da. Pertsonaiek musu ematen badute benetan ematen dute, hau da, ez dugu ekintza horren errepresentazioa egiten. Pertsonaiaren barruan sartu, baina norberak bere erara egiten du dantza; norbera ari da dantzan». Horregatik, ulertzen erraza dela zion.

Xalotasun eta naturaltasun hori lortzeko, ordea, gaur egungo aurrerakuntza teknologikoak erabiltzen ditu Frantziako koreografoak. Horrela, argiztapen bereziak emango dio argia Sergei Prokofieven musikaren erritmora dantza egingo duen Mari Errauskin garaikideari.

Ainhua Oñartzabal | DONOSTIA

Printzeak ez dio Maria Errauskini kritalezko zapatarik jantzi-ko gaur Kursalean Les Ballets de Monte-Carlo dantza taldeak eskainiko duen dantza ikuskizunean. Izan ere, ez du oinetarik galdu Frantziako Jean Christophe Maillot koreografo handiak zuzendu duen *Mari Errauskin* baletoko protagonistak. Istorio honetan Maria Errauskinen oinen arrastoak hartuko du zapataren lekua, «eta urrats horiek jarraituz aurkituko du Printzeak bere maittea», zioten atzo dantzariak emanaldia eskaini bezperan: «Printzeak, bizi den unibertso itxitik irten eta, bere maitarearen atzetik abiatu beharko du, haren urratsen aurrean belaunikatuz eta umiltasunez jokatzuz».

Halaber, Mari Errauskinen aita eta amaren presentzia handia dela iragarri zuten. Batik bat, amaren papera nabarmendu zuten: «Hilik dagoen ama maitagarri bihurtzen baita». Dantzarien esanetan aitaren eta alabaren arteko maitasuna, amaren eta alabaren artekoa... Finean, maitasun mota desberdinak ageri dira narrazioaren menara dagoen balet honetan.

Beraz, Maillotek hankaz gora jartzen du Mari Errauskin ipuin klasikoa, eta ikuskizun abango-



GARI GARAIALDE

Asier Uriagereka euskal dantzariak hartzen du parte *Mari Errauskin* baletan.

BIGARREN DENBORALDIA

Datorren igandean Rokia Traore kantaria izango da

Jada amaitu dira gaur Kursaalaren bigarren denboraldia zabalduko duen Mailloten *Mari Errauskin* baletarako sarrerak. Emanaldi honen atzetik etorriko diren ikuskizun nahiz kontzertuetarako sarrerak ere jadanik salgai daude. Bonoen salmenta, ordea, itxi dute. Kursaal Fundazioaren arduradunen esanetan, 1.400 bono inguru saldu dituzte musika klasikoaren

nahiz musika herrikoi edo poparen emanaldietarako.

Gaurko balet emanaldiari Maliko Rokia Traore kantariaren kontzertuak jarraituko dio igandean, eta honen atzetik Circo Eos ikuskizuna izango da hilaren 18an. Pedro Guerra, Annette Peacock eta Akademie für Alte Musik Berlin Collegium Vocale Gent orkestaren emanaldiek osatuko dute hileko programazioa.

Oreka TX, Cesaria Evora, Espainiako Dantza Konpainia edota Els Comediantes-en ikuskizuna izango dira datorren urtarrila bitartean eskainiko diren emanaldietako batzuk.